



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko otsailaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, otsailaren lehenean, zazpiak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzan duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki
Bilkurako idazkari izendatua izan da : CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren eguna : 2023ko urtarrilaren 26a
Afitxatze eguna : 2023ko urtarrilaren 26a

1. ERABAKIA: GAZTAINA ELKARTEKO BAZKIDE IZATEA 9.1 nomenklatura

Auzapezak Gaztaina elkarte eta horren estatutuak aurkeztu dizkio Herri Biltzarrari. Elkartea 2018an sortu zen Euskal Herriko gaztainaren lantzea eta bilakatzea balioan ezartzeko. Iraganean, lurralde honetan, eta bereziki Baigura mendigunean gaztainadi handiak baziren (Bidarra, Heleta, Ortzaize, Luhuso, Makea eta Lekorne), ezin hobea baita lekuaren altuera arbola horien garatzeko. Ipar Euskal Herriko bertze leku batzuetan ere atzeman dira gaztainadiak: Zuraide, Senpere eta Baigorriko ibarrean besteak beste. Elkarreak ondare hori zaintzea, berreskuratzea eta garatzea du xede, altuera ertaineko mendigunea behar bezala antolatu eta partekatuz. Pertsona fisikoak eta juridikoak (pribatuak ala publikoak) dira elkarteko bazkide. Elkarteko kide izatea proposatu du, urtean 300 euroko sari baten truke. Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrek,

- **ERABAKI DU**, Gaztaina elkarteko bazkide izatea,
- **ERABAKI DU**, urtean 300 euroko saria ordaintzea.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2023ko otsailaren 10ean
Auzapezaren axuanta,
Jean-Claude IRIART

Betegarria bilakatu den akta,
2023/02/10ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/02/10ean.